

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**ERREGE KATOLIKOAK 16**



**Egilea eta data: Manuel Echave; 1908**

**Deskribapena**

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituen, gehi 1925eko bi jasodura, lehena mantsarda txapituladun gisa (jatorrizko estalkipearen berritze gisa) eta bigarrena atzeraemana. Harlanduzko fatxada. Atariko baoa goi oinen erdialdeko hormatal itsuaren ardatzean dago, eta bi alboetan bao bikoitzak ditu. Bao horietako mainela deszentratuta dago jatorriz (metalezkoa zen proiektuan, baina harriz eraiki zen). Proiektu komuna Errege Katolikoak 14 eta 18rekin.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra.
  - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
  - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.